

Euskararen erabilera. Euskal Herria

Definizioa

Euskararen erabilerearen tipologia bat atera da hiru erabilera-eremu nagusiren datuak kontuan hartuz. Adierazle honen erabilerari buruzko datuak tipologia horren arabera dira.

Tipologia eratzeko honako erabilera-eremu hauek hartu dira kontuan:

- **Etxea** (etxeokoen egiten den ahozko erabilera)
- **Lagun artea** (lagunekin egiten den ahozko erabilera)
- **Eremu formala** (denda, banku, osasun-zerbitzu eta udal zerbitzuetako langileekin egiten den ahozko erabilera)

Hedadura

Euskal Herria

Aldagaiak eta kategoriak

- **Eremu geografikoa:** Euskal Herria, EAE, Nafarroa, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi eta Nafarroa Beherea/Zuberoa
- **Euskararen erabilerearen tipologia:**
 - **Euskaraz erdaraz baino gehiago:** beti euskaraz egiten dutenak ere kategoria honetan sartzen dira.
 - **Euskaraz erdaraz beste**
 - **Euskaraz erdaraz baino gutxiago**
 - **Oso gutxi euskaraz:** eremu batean soilik erabiltzen dute euskara, eta erdaraz baino gutxiago.
 - **Beti erdaraz.**

Azpi-adierazleak (gurutzaketak)

Euskararen erabilera adinaren arabera

Euskararen erabilera sexuaren arabera

Iturria

Inkesta Soziolinguistikoa

Iturriaren ezaugarriak

Inkesta Soziolinguistikoa aztertzen duen unibertsoa Euskal Herriko hamasei urte edo gehiagoko biztanleek osatzen dute.

Inkesta Soziolinguistikoa lau esparru hauen datuak neurtzen ditu: euskara-gaitasuna, euskararen transmisioa, euskararen erabilera eta euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera.

Lehenengo hiru inkestak aurrez aurre egin ziren, baina 2006tik aurrera telefonoz egitea erabaki zen.

Iturriaren arduraduna

Inkesta Soziolinguistikoa arduradunak Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Nafarroako Gobernuko Euskarabidea eta Iparraldeko Euskaren Erakunde Publikoa dira.

Lehenengo datua eta maiztasuna	<p>Lehenengo datua: Aurreneko Inkesta Soziolinguistikoa 1991n egin zen.</p> <p>Maiztasuna: Bost urterik behin egiten da.</p>
Lagina eta akats-tartea	<p>Azken datu-bilketa 2016an egin da, telefono bidez eta galdetegi egituratua eta itxia erabiliz.</p> <p>Laginketa polietapikoa izan da, eta inkestak egiteko, etxebizitzan aukeraketa geruzatua egin da, gune soziolinguistikoaren eta udalerrriaren arabera.</p> <p>Lurralde bakoitzean, 16 urte edo gehiagoko biztanleen arabera haztatu dira emaitzak, sexua, adina eta euskaldunen zein ez euskaldunen banaketa kontuan hartuta.</p> <p>2016ko VI. Inkesta Soziolinguistikoan 8.200 inkesta egin dira guztira: 4.200 EAEn, 2.000 iparraldean eta 2.000 Nafarroan.</p> <p>Euskal Herriko lagin osoaren akats-tartea \pm % 1,4koa da % 95,5eko konfiantza mailarako eta $p=q$=% 50. Konfiantza maila bererako erkidegoka laginketa-errorea honakoa da: EAEn \pm % 1,9koa, Nafarroan \pm % 2,9koa eta Iparraldean \pm % 2,3koa.</p> <p>Euskal Autonomia Erkidegoko lagin osoaren akats-tartea \pm % 1,9koa da % 95,5eko konfiantza mailarako eta $p=q$=% 50. Konfiantza maila bererako lurraldekako laginketa-errorea honakoa da: Araban \pm % 4koa, Bizkaian \pm % 2,8koa eta Gipuzkoan \pm % 3koa.</p> <p>Nafarroako lagin osoaren akats-tartea \pm % 2,9koa da % 95,5eko konfiantza mailarako eta $p=q$=% 50. Konfiantza maila bererako eremukako laginketa-errorea honakoa da: Eremu euskaldunean \pm % 4,3koa, Eremu mistoan \pm % 3,9koa eta Eremu ez euskaldunean \pm % 5,5koa.</p> <p>Iparraldeko lagin osoaren akats-tartea \pm % 2,3koa da % 95,5eko konfiantza mailarako eta $p=q$=% 50. Konfiantza maila bererako eremukako laginketa-errorea honakoa da: BAMen \pm % 3,7koa, Lapurdi (BAM gabe) \pm % 3,7koa eta Nafarroa Beherean-Zuberoan \pm % 4,5koa.</p>
Informazio osagarria	
Argitalpenak eta txostenak	<p>http://www.euskadi.eus/informazioa/ikerketa-soziolinguistikoak/web01-a2lingu/eu/</p> <p>http://www.euskarabidea.es/euskara/euskara-nafarroan/datu-sozio-linguistikoak</p>
Galdesorta(k)	<p>http://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_291/opt_1/tipo_8/ti_Inkesta_soziolinguistikoa/temas.html</p>